

Laudio, 2020ko martxoaren 13a

# Lan-mahaia, koronabirusari eusteko neurriak hartzeko eratusa, erabakiak hartzerakoan aurrera doa

*Positiboki baloratzen dira orain arte iragarritako neurri murriztaile guztiak, eta udalerriko egoeraren bilakaera aztertzen jarraitzen da*

*Gaur goizean, herritarrei udaletxera sartzeko aukera mugatu zaie, eta 010 eta 944 034 800 telefonoetan soilik emango zaie arreta, edo, larrialdiko gaiak izanez gero, aurrez hitzordua eskatuta*

*Gutxieneko zerbitzuak agintzen dira arlo guztietan, eta astelehenetik aurrera funtzionario guztiak egin ahal izango dute telelana, borondatez, gobernu-taldeak emandako beharrezko tresna guztiakin*

Gaur goizean krisi mahaia deitu dute berriro, koronabirusa Arabako lurraldean zabaltzearen ondorioz sortutako egoeraren jarraipena egiteko. Ander Añibarro alkateak koordinatutako lan taldea izango da, eta Gobernu taldeko kideak eta udal teknikariak izango dira bertan, birusaren hedapena geldiarazteko helburuarekin erabakiak aztertu eta hartzeko.

Gaur goizean, atzo hartutako neurriak eta horien ondorioak ebaluatu dira, eta positiboki baloratu dira. Horregatik jarraitu da ildo horretan neurri berriak hartzen. Horrela, udalean herritarrei aurrez aurreko arreta etetea erabaki da. Horretarako, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta, 010 edo 944 034 800 telefonoetara deitu beharko da.

Telefono horien bidez, gestio guztiak argituko dira, hala nola errolda eskaerak edo ordainagiriak, eta zalantza guztiei erantzungo zaie. Premiazko gaia edo tipologia konplexuagokoa bada, udaletxera sartzeko aurretiko hitzordua emango da, Udaltzaingoaren komisariari dagokion sarreratik.

Era berean, udalerriko haur-parke guztiak ixtea erabaki da, birusa herritarren artean zabaltzea eragin dezakeen pertsona-pilaketa saihesteko. Gainera, egunotan iragarritako hezkuntza, kirol eta jolas-jardueren amaierarekin bat etorritz, Dolumin Barikuarekin zerikusia duten ekitaldi guztiak bertan behera uztea ofizial egin berri da.

### **Udal funtzionarioen telelana**

Lan taldean hartu den beste erabakietako bat udal langileen barne lanari dagokiona da. Kasu honetan, Gobernu Taldeak martxoaren 16tik aurrera (astelehena) funtzionario guztiei helarazi die telelana egiteko aukera izatea.

Hala ere, gutxieneko zerbitzu batzuk bermatuko dituzte gutxienez hiru astez udaletxeko arlo guztietan. Udaltzaingoaren kasuan, ez da gutxieneko zerbitzurik ezarri, eta ertzain guztiak beren lan-txandetan arituko dira lanean, udalerrri barruan segurtasuna bermatzeko.

Langile publiko guztien eskura jarri ditu behar diren lan- eta segurtasun-tresnak, beren lana behar bezala eta eraginkortasunez egin dezaten. Neurri horiek hartu dira, gaur egun udal-instalazioetan ez dauden arriskuak prebenitzeko ez ezik, udaleko langileen kontziliazio-egoera malgutzeko ere, Euskal Autonomia Erkidegoa osoan hezkuntza-jarduera eteteari erantzuteko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak atzo dekretatu zuenez.